

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

**Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 1ean hartutako erabakiaren laburpena. Erabaki horren bidez onartu zen Laudion erroldatutako biztanleek 2019ko udan, 2019ko ekainean, uztailan, abuztuan edota irailean egindako euskara ikastaro trinkoak diruz laguntzeko deialdia**

BDNS(Identif.): 452225

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, alegia, Diru-laguntzen Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>).

#### **Lehenengoa. Onuradunak**

Laudion erroldatuta dauden pertsona fisiko guztiak izan daitezke, betiere, oinarri arautzaileetan azaltzen diren eskakizun guzti-guztiak betetzen baldin badituzte.

#### **Bigarrena. Helburua**

Laudio Udalak Euskara Arloaren bitartez euskara ikasteko norgehiagokako araubidean ematen dituen diru-laguntzen esleipena arautzea da. Beka hauek euskara ikasteko egon litezkeen oztopo ekonomikoak saihesteko ematen dira.

#### **Hirugarrena. Oinarri arautzaileak**

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak onartu zituen 2017ko maiatzaren 19an. Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2017ko maiatzaren 29an.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Hau da:

2019ko udako ikastaroetako, 5.000 euro.

Edozein modutan ere, urte natural berean eskatzaile batek jasotako euskara beken batuketak ezingo du 1.000 euroko muga gainditu.

#### **Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea**

2019ko ekainaren 3tik urriaren 15era arte, 2019ko ekaineko, uztailako, abuztuko edota iraileko udako ikastaroetarako.

Laudion, 2019ko martxoaren 1ean

*Alkate-udalburua*

*JON IÑAKI URKIXO ORUETA*